

B E U S K A R A R E N B E R R I P A P E R A

HIZKUNTZA POLITIKARAKO SAILORDETZA

Zerbitzu berriak sortzen ari dira herrietan gaztetxoen aisialdia euskaraz antolatzeko

Herri erakundeek egitarau zehatzak eta azpiegitura geroz eta hobea dute haurren eta gaztetxoen aisialdia euskaraz eskaintze aldera. Horrekin batera, azkenaldi honetan, ikusirik gizarrean geroz eta egarri handiagoa dagoela horrelako zerbitzuak jasotzeko, euskaraz lan egiteko taldeak ari dira sortzen hainbat herritan. Helburu argia dute: euskal giro aberatsa ezagutzeko eta euskaraz bizitzeko aukera eskaintzea etxean eta kalean erdal giroa duten haurrei eta euskal ingurunean bizi direnei.

Talde hauetako gehienak euskara elkarteen baitan sortu dira; poliki-poliki, ordea, hauetako batzuk, Arrasateko Txatxilipurdi kasu, profesionaltasunaren eta espezializazioaren bidea hartzen ari dira.

Ekintzak direla eta, urte osoa hartzen dute, hau da, eskola garaia eta oporraldia; halaber, batzuk astegunetan izaten dira eta beste batzuk asteburuetan. Esaterako, ludotekak, gazte txokoak, udalekuak, jaialdiak, antzerkiak, etab. eratzen dituzte.

Ahaleginik handienak 3 eta 16 urte arteko haur eta gaztetxoentzako aisialdia prestatzen egiten dituzte. Geroz eta gehiago, adin multzo bakoitzerako

ekintza eta zerbitzu bereziak sortzen dituzte.

Gogoan izanda ekintza hauetan guztietan gaztetxoentzako jarduna zuzenduko duten begiraleak zein garrantzitsuak diren, talde hauek arreta berezia jartzen dute begiraleen prestakuntzan, eta, horretarako, neurririk egindako ikastaro bereziak eskaintzen dizkiete begirale izan nahi dutenei.

Aipatzekoak dira, bestalde, B eta D ereduetan ikasitako ikasleekin egiten ari diren saioak, guztiak elkartu eta denen artean euskal giroa

sortzeko. Zenbait herritan, adibidez, OHO osoa B ereduaren ikasitako ikasleei hoguei eguneko ikastaro eta egitaraua prestatu zaie, D ereduaren sartzen direnean oztoporik izan ez dezaten. Kasu hauetan B ereduko ikasleek D ereduko laguntza dute ikastaroan zehar.

Aisialdiko talde hauek herritar guztien onespina irabazten ari dira, gizarrean behar dituen zerbitzuak eskaintzeaz batera, egiten duten lana beharrezkotzat hartzen delako Euskal Herriko gizarrearen integrazioarako.



Txatxilipurdi taldeak zortzi urte daramatza lanean Arrasateko haurrekin. Bederatzi langilerekin eta 70 begiralarerekin, urtean zehar 2.000 haur eta gazte bereganatzen ditu. Haur eta gaztetxoentzako aisialdiarekin zerikusirik duten zerbitzuak saltzen dizkie inguruko udal, eskola eta elkaratei.

Josune Ariztondo, HABEko zuzendari herria

Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundeak, HABEk, zuzendari berria du: Josune Ariztondo, 47, ondarrutarra. Zaragozako Unibertsitatean Kimikan lizentziatu zen. "Beharbada euskara neurea nuelako, gaztelania ondo egiteko pruritoa izan nuen garai hartan. Hori lortutakoan, ostera, euskara ondo menperatzeko ardura sartu zitzaidan. Hortik aurrera euskaraz irakatsi nahi nuen". Berea izan zen EHU n euskaraz aurkeztu zen lehen doktorego tesia, zientzia esperimentalen didaktikaz, hain zuzen. Harez gero, irakaskuntzari eta euskalgintzari lotuta bizi izan da. Hogeitazehar Derioko Irakasle Eskolako irakasle -lehen emakume



Josune Ariztondo

seglarra- izan zen, kimika, matematika eta zientzia esperimentalen didaktika irakasten.

Ikasketa buru ere izan zen. Bestalde, Udako Euskal Unibertsitatean ere lan dexente egin du irakasle gisa. Azken lau urteotan Lauro ikastolako zuzendari pedagogikoa izan da.

Euskaraz irakasteko zegoen material eskasiak bultzatuta, lan handia egin du testugintzan. Liburu bat argitaratu zuen, Jazinto Iturberekin elkarlanean, Kimikaren irakaskuntzaz. UEUko zenbait kideekin batera

Saiokak OHOk 7. eta 8. mailerako argitaratutako Natur Zientzietako liburuak prestatu zituen.

Azken zazpi hilabeteak Hizkuntza Politikarako Sailordetzan egin ditu, Euskara Sustatzeko zuzendari moduan.

Euskal Etxeen I. Mundu Biltzarra

Azaroaren 6tik 9ra bitartean Euskal Etxeen I. Mundu Biltzarrak munduko 15 herrialdetan dauden euskal Etxeetako 60 ordezkari bilduko ditu Gasteizen.

Lehen biltzar honetan euskal etxeen etorkizunaz eztabaidatuko da, euskarak eta euskal kulturak haietan bete lezaketen tokiaz eta gazteen esku hartzeaz. Horretaz gain, atzerrian bizi diren euskaldunen egoeraz eta euskaldunek munduan izan dezaketzen proiektioaz ere hitz egingo da.

Lehen biltzar hau Eusko Kanpo Ekintzetarako Sailak antolatu du, eta Eusko Jaurlaritzak 1994an munduan barrena berreiaturik dauden euskaldunekin harremanak sendotzea helburu duen legeak dioena betetzera dator. Amaieran, euskal etxeek datozen lau urteotan egin beharreko egitasmoa zehaztuko duen adierazpena egingo dute.

Elhuyar eta Eraz aldizkariak 100 zenbaki. Elhuyar Zientzia eta Teknika aldizkariak 100. zenbakia argitaratu zuen urrian. Zientziaren eta teknikaren zabalkundea euskaraz egitea helburu duen aldizkari hau orain 21 urte sortu zen, Donostian. Durangaldean ere badute zer ospaturik, Eraz eskualde astekaria 100. zenbakira iritsi baita. Eraz orain hiru urte sortu zuen Berbaro elkarteak Durangalderako.

Mogelen urteurrena Markinan eta Eibarren. Juan Antonio Mogel euskal idazlearen 250. urteurrena dela eta, Eibarko eta Markinako udalek hainbat ekitaldi antolatu dituzte haren omenez. Azaroan bost hitzaldi emango dira Eibarren, idazlea mintzagai dutenak. Abendurako, ostera, Mogeli eskainitako erakusketa eratu da: 5etik 19ra Eibarren eta abenduaren 22tik urtarrilaren 6ra Markinan.

Euskal Kantuaren V. Txapelketa. Euskal Kantuzaleen Elkarteak antolatuta, azaroaren 25ean Euskal Kantuaren V. Txapelketa hasiko da Burlatan. Bigarren kanporaketa Leitzaan izango da, eta hirugarrena Donezteben. Finala datorren urtean jokatu da, Gasteizen. 15 urtetik gorakoek parte hartu ahal izango dute, bakarlari gisa, bikote moduan edo taldean. Izenak emateko epea azaroaren 10ean itxiko da.

Euskal prentsa aztergai Galesen. Urriaren 26tik 29ra bitartean Europako Mosaikoari Buruzko Biltzarra egin da Galesko Swansea eta Lampeter hirietan. Martxelo Otamendi Euskaldunon Egunkariako zuzendaria euskarazko egunkariak mintzatu zen. Hirugarren egunean, José Félix Díaz de Tuesta Arrasateko Udaleko Euskara teknikariak euskarazko herri prentsa izan zuen mintzagai.

Orrialde Horiak: euskaraz kontsultatzeko moduan

Telefonikac telefonorik duen enpresa eta etxe guztietara bidaltzen ditu Orrialde Horiak, doan. Hego Euskal Herriko ia etxe gehienetan aurki ditzakegu, beraz. Orriotan ez da literaturarik aurkitzen, baina libururik irakurrienetakoa da, hala ere.

Aurtengo argitalpenak berrikuntza nabarmenak ekarri ditu, euskarari dagokionez:

3.300 termino baino gehiagoko aurkitegia osatu da, bai gaztelaniaz bai euskaraz, gizartean aurki daitezkeen jarduera guztien berri ematen duena.

Orain arte ez bezala, edizio honetan bezeroak euskaratik ere aurki ditzake bilatzen ari den jarduerak.

· Lehenbiziko aldiz, "Hirira iritsi berria", "Zain ezazu natura", Libururik irakurriena" eta antzeko mezuak euskaraz zabaldu ditu Telefonikac Orrialde Horietan zehar.

Telefonikaren eskariari erantzunez, bezero euskaldunarengana hurbiltzeko

ahalegin honetan Nafarroako eta Euskal Autonomi Elkarteke administrazioek esku hartu dute elkarlanean. Aurretiaz eginiko saioetan bezalaxe -gogoratu *Euskal Herriko Herri Erakundeen Barne Errotulazioa eta Bide Seinaleak* liburutxoetan ere administrazio biak aritu zirela elkarlanean-, euskaratze lanetan jardun duten teknikoek itzulpena ezezik jatortasuna eta erraztasuna bilatu dute testuetan. Bai eta lortu ere. Ahalegin hauei esker, bezero euskaldunok "gero eta gugandik gertuago" izan ditzakegu Orrialde Horiak.



Bernardo Atxaga, 44, idazle asteasuarrak Pirinio Atlantiarrek emandako Hiru Koroak saria jaso zuen Angelun, orain arte egindako lanagatik. Hala ere, ez du estraineakoa: Espainiako Literatur Sari Nazionala, Frantziako Millepage Saria eta Euskadi Saria ditu lehendik, besteak beste.

Javier Díaz Noci, 31, irakasle gasteiztarrak Euskal Prentsaren Sorrera eta Garapena (1834/1939) liburua argitaratu du Eusko Ikaskuntzaren Komunikabide Saileko Koadernoetan. Liburu honek Díaz Nociren doktorego tesia biltzen du. EHUKo Informazio Zientzien fakultatean irakasten du, Leioan.

José María Iza, 53, irakasle oiartzuarra Nafarroako Unibertsitate Publikoko Normalkuntza Linguistikorako Batzordeko buru berria da. Pedagogian eta Euskal Filologian lizentziatua, Hizkuntza irakasten du NUPen.

Argitalpenak

Eibar Ezagutzen

Eibarko Udalaren eskutik datorkigu *Eibar Ezagutzen*, Lehen Hezkuntzarako ikastunitateak biltzen dituen argitalpena. Karpeta moduan tajutua, bederatzi ataletan banatuta dago, Eibarko haurrek euren jaioterria hobeto ezagut dezaten. Mapaz, irudiz eta ariketa osagarri hornitua dator liburu atsegina eta erabilgarri hau.



EUSKARAREN BERRIPAPERA zure etxean doan jaso nahi baduzu edo ezagunen bati bidaltzea nahi, idatzi helbide honetara:

Hizkuntza Politikarako Sailordetza
Wellingtongo Dukea, 2
01010 Vitoria-Gasteiz (Araba)

Euskaraz Gaztekeraz

Izen-deiturak:
.....
Helbidea:.....
.....
Herria:
Kodea:
Lurraldea:
Tel.:

Galdezka

Azterketa soziolinguistikoa


G. Aurten, maiatzean, lehen azterketa soziolinguistikoaren emaitzak argitaratu ziren. Izango du jarraipenik epe laburrera?

E. Bai. Bigarren azterketa egiteko lehen urratsak eman dira eta honek ere Euskal Herri osoa hartuko du.

Bestalde, estraineoan bezala, hainbat administrazioen elkarlanaren bitartez aterako da aurrera. Parte hartuko dute, hain zuzen, Eusko Jaurlaritzak, Nafarroako Gobernuak eta Iparraldeko Euskal Kultur Erakundeak.

Bigarren inkesta hau dela eta, daturik izango dugu hiztunek euskaraz, gaztelaniaz eta frantsesez duten gaitasunari buruz, euskararen erabilerari buruz hainbat eremutan, eta hizkuntzarekiko jarrera eta interesaz.

Jakingo dugu, halaber, hezkuntza sistemaren bidez euskara ikasi duten euskaldunberriek zenbateraino erabiltzen duten euskara, eta familia bidezko jarraipena zelakoa den.



Jose M. Zeberio
Hizkuntza Politikarako
idazkari nagusia.

Euskarazko testugintza EHU

Euskal Herriko Unibertsitateak aurrera segitzen du jarduera akademikoa euskaraz ziurtatzeko ahaleginean. Horren adierazgarri dira euskal testugintza bultzatzeko hartzen ari den neurriak.

Katalogoa

EHUko Argitarapen Zerbitzuak katalogoa kaleratu du, orain artean euskaratu eta argitaratu dituen liburuen berri emateko.

Horietako 20 Euskararako Institutua bilduman atera dira. Artea, Ekonomia, Historia, Hizkuntzalaritza, Idazkera Teknikoa, Ikasgaiak, Psikologia, Soziologia, Zientzia eta Teknologia eta Zuzenbide sailtakoak dira liburuak. Katalogoak liburu bakoitzaren argazkiaren ondoan edukiari buruzko oinarrizko xehetasunak

ematen ditu. Gainerako sei liburuak Euskaltzaindiarekin (bi) eta Udako Euskal Unibertsitatearekin (lau) elkarlanean atera dituen koedizioak dira. Denetara, beraz, 26 liburu, euskaraz ikasten duten ikasleentzat.

Argitara emandakoez gainera, moldiztegiandauden eta ikasturte honetan kaleratuko diren beste 11 liburu iragartzen ditu katalogoak.

1995ean beste 10 testuliburu

EHUko Euskararako Errektoreordetzak, Gipuzkoako Foru Aldundiaren dirulaguntzari esker, hamar testuliburu euskaratuko ditu 1995ean. Gaiak espezialitate desberdinei dagozkie eta jatorrizko hizkuntzak alemana, gaztelania eta ingelesa izango dira.

✓ Kontutan hartzeko

- **Nafarroan "Euskara Betiko Mintzoa" erakusketa.**

Nafarroako Gobernuak eratu duen Euskara Betiko Mintzoa erakusketak herriz herri segitzen du Nafarroan zehar. Azaroaren 2tik 12ra Zangotzan izango da eta 16tik 28ra Elizondon. Abenduaren 15etik 31ra, aldiz, Lekunberrin.

- **Euskal Etxeen I. Mundu Biltzarra.** Azaroaren 6an,

inaugurazio egunean, William Douglas, Renoko Unibertsitateko irakasle eta euskal diasporaren ikerleak, hitzaldia emango du, Gasteizen.

- **VII. Gerriko Ikelan-Sariketa.** Goierri buruzko ikerlan argitaratu gabeak aurkez litezke, euskaraz. Lanak jasotzeko epea 1996ko martxoaren 22an itxiko da. Tel.: (943) 16 02 82.

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA

